



MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

BEKA EZ UNIBERTSITARIOAK. 2020-2021 ikasturtea

1. Zein da aurkezteko epea?:

- 2020ko urriaren 9tik azaroaren 9ra arte.
- Matrikula 2020ko azaroaren 9a baino geroagokoa bada, beka-eskaera aurkezteko epea hilabetekoa izango da, matrikula egiten den egunetik hasita. Edonola ere, 2021eko apirilaren 30era arte baino ez dira onartuko beka-eskaerak.

2. Non eskura dezaket eskabide-orria? Bete ondoren, non aurkeztu behar dut?

Eskabide-orria hemen dago eskuragarri:

- On-line: : https://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2020/nouni/web01-tramite/eu/,
- Ikastetxeetan.

2019-2020 ikasturtean beka eskatu ba zenuen, datuak aurretik grabatuta dituen eskabide-orria lortuko duzu, eta nahiz eta sinadura elektronikoa ez izan, eskabidea balioztatu eta internetez aurkeztu ahal izango duzu, eskabide-orrian agertzen den egiaztatze-kodea erabiliz. Dokumentazio gehigarria behar izanez gero, eskaneatuta erantsi ahal duzu eskabide-orrian, edo ikastetxean aurkeztu.

2019-2020 ikasturtean bekarik eskatu ez baduzu, eta sinadura elektronikoa izanez gero, eskabidea internetez aurkeztu ahal duzu. Dokumentazioa erantsi ahal duzu eskaneatuta, eskabide-orrian. Sinadura elektronikorik ez baduzu, eskabide-orria modu telematikoz bete, inprimatu eta izenpetu egin behar duzu. Gero, behar diren dokumentuekin, ikastetxean aurkeztu eskabide-orri hori.

3. Ba al da haurtzaindegirako bekarik?

Bai, 0 eta 2 urte arteko ikasleentzat (salbu Haurreskolak Partzuergoko ikasleak), honako laguntzekin:

- Kuota: 0 urteko eta urte leko ikasleak, gehienez hilean 90 euro (gehienez 11 hilabetez).
- Irakaskuntza: 2 urteko gela, 200 euro (ikastetxe publikoetan ez).
- Jantokia: 2 urteko gelakoentzat, gehienez 4 euro eguneko (gehienez 178 egun).

4. Bi ikasketa desberdin egiteko beka eska al daiteke? Bai, eska daiteke, baina soilik zenbateko handiena duena ematen da.

5. Autonomia Erkidegotik kanpo erroldatuta egonez gero, beka eska al dezaket? Bai, ikastetxea Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badago.

6. Zein laguntza jaso ditzaket? Baldintza guztiak betez gero, honakoak jaso ditzakezu:

a) Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantzako oinarrizko ikasketetako ikasleentzat:

- Eskolako materiala.
- Jangela: soilik Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Hezkuntza Bereziko mailentzat. Gehienez ere 712 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua (178 egun, gehienez ere), bider eguneko prezioa, gehienez ere, 4 eurokoa izanik.
- Irakaskuntza. Haur Hezkuntzako 2 urteko gelako ikasleentzat
- Kuota: Haur Hezkuntzako 0 eta 1 urteko ikasleentzat.
- Joan-etorriak: soilik Hezkuntza Bereziko eta oinarrizko Musikako eta Dantzako ikasleentzat, ikaslearen helbidea beste herri batean badago eta 5 km edo gehiago badira, betiere, joan-etorrietarako

diruz lagundutako garraioa erabiltzen ez bada. Kontuan izango da hurbilago beste ikastetxerik dagoen a la ez.

b) Batxilergoa, Lanbide Heziketa Erdi-mailakoa edota Goi-Mailakoa, Musikako eta Dantzako Ikasketa Profesionalak, Arte Plastikoak eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Kirol-Irakaskuntzako ikasleentzat:

- Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Oinarrizko bekaren osagaia.
- Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Zenbateko aldakorreko osagaia.

Oinarrizko bekaren osagaia bateraezina izango da eskatzailearen errentari lotutako zenbatekoarekin.

c) Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Hizkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleentzat.

- Oinarrizko bekaren osagaia.
- Zenbateko aldakorreko osagaia

7. Inprimakiaren zein ataletan adierazi behar dut eskatu nahi dudan beka mota?

Ez da leku zehatz batean adierazten, eskaera bakarra baita. Familiaren egoera ekonomikoaren, ikasketa motaren, distantzien eta abarren arabera, laguntza bat edo gehiago emango da.

8. Zein agiri aurkeztu behar ditut?

2019-2020 ikasturteko beka eskatu ba zenuen, soilik 2019-2020 ikasturtean emandako datuekiko aldaketarik egon bada, erantsi egin beharko dira aldaketa hauen egiaztagiriak.

2019an elkarbizitza-unitatean lortutako diru-sarrerari dagokienez, soilik hauek aurkeztuko dira:

- Errentaren Aitorpenaren fotokopia, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan aurkeztu ez bada.
- Bizikidetzaren diru-sarrerak justifikatzeko egoki iritzitako beste edozein dokumentu (Ogasunean daturik ez dutenek), : gizarte zerbitzuak, Caritas, Gurutze Gorria, eta abar

2019-2020 ikasturtean bekarik eskatu ez baduzu:

- Familia ugaria, guraso bakarreko familiak (banantzeak, alarguntza...), zurtasun, minusbaliotasun, familiaren etxetik kanpo bizi diren anai-arreba unibertsitarioak, eta abarren ziurtagiriak.
- Errentaren Aitorpenaren fotokopia, **Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan** aurkeztu ez bada.
- Bizikidetzaren diru-sarrerak justifikatzeko egoki iritzitako beste edozein dokumentu(Ogasunean daturik ez dutenek), : gizarte zerbitzuak, Caritas, Gurutze Gorria, eta abar.

9. Zeintzuk dira gainditu ezin ditudan diru-sarrerak? Zergatik dago diru-sarrera taula bat baino gehiago?

Lor daitezkeen laguntza mota desberdinetarako, gainditu ezin diren gehieneko diru-sarreraren mugak dituzten hainbat taula daude. Muga horiek familia-unitateko kide kopuruaren, laguntza motaren eta ikasketa-mailaren arabera aldatzen dira.

10. Diru-sarrerarik ez badut, zer aurkeztuko dut eskaerarekin?

Diru-sarrerak nolabait adierazi behar dira, jasotako laguntzen, lan-kontratuen, 10T-en, bizibideen ordezkagiriaren bidez (bizitzeko baliabideak egiaztatu behar dituzte agiri ofizialen bitartez: gizarte zerbitzuak, Caritas, Gurutze Gorria...

11. Nola kalkulatu dira familiaren diru-sarrera garbiak?

1.– 2019ko ekitaldian PFEZaren aitortpena aurkeztu duten kide konputagarrien errenta zehazteko, **zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batuko dira**. Zerga-oinarri orokor osoak edo zati batek jarduera ekonomikoen etekinak baditu, eta etekin horiek zeinu negatiboa badute, emaitza 0 izango da. Gainerako zenbatekoari **kuota likidoa kenduko zaio**. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasota ez dauden diru-sarrerak eta laguntzak gehitu egingo zaizkio aurreko formularekin ateratako emaitzari.

2.– Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpena egiteko obligaziorik izan ez, eta halakorik aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta honela kalkulatu da:

a) 2019ko ekitaldian edozein kontzeptu dela-eta lortutako diru-sarrera guztiak batuko dira (lan-etekina, langabezia-prestazioak eta -laguntzak, pentsioak, gizarte-laguntzak, salbuetsitako errentak...), baita ohiko etxebizitza ez diren hiri-ondasunen etekina ere –PFEZaren ondorioetarako konputagarria–, betiere 2019ko ekitaldian aplikatzeko den zerga-araudiaren arabera.

b) Batura horretatik kendu beharko da aplikatzeko diren gastu kengarriek (Gizarte Segurantza, etab.) eta konturako atxikipenek sortutako zenbatekoa.

12. -Noiz ordaintzen da beka? Nola jakingo dut?

Behin-behineko eta behin betiko ebazpenen jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren <https://euskadi.eus> webguneko iragarki-taula elektronikoan argitaratuko dira. Aipatutako iragarki-taulan ebazpenak argitaratzen direnean SMS edo posta elektronikoaren bitartez abisatuko da.

Ebazpena euskadi.eus webguneko iragarki-taula elektronikoan argitaratzen denetik aurrera, alegazioak aurkezteko epea 15 eguneko izango da, eta gora jotzeko errekurtsua aurkezteko, hilabetekoa.

Laguntza dena batera ordainduko da hilabeteko epean, Kudeaketa ekonomikoaren zuzendariak **behin betiko ebazpena ematen dutenetik aurrera.**

13. Laguntza esleitzen ba didate, zergatik ez dut nik dirurik jasotzen?

Kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten ikastetxe publikoen kasuetan, jangelako laguntzak zuzenean ematen zaizkio ikastetxeari, eta ikastetxeak laguntza horiek jasotzean, familiei itzuliko dizkie, hala badagokie.

14. Jangelako laguntza ematen ba didate, zergatik ordaindu behar diot kontzeptu hori ikastetxeari?

Jantokiaren kostua ordaintzen den gehieneko zenbatekoa baino handiagoa izan ohi delako. Gehienez ere 712 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua; (178 egun, gehienez ere), bider eguneko prezioa, gehienez ere, 4 eurokoa izanik.

15. Ikaslea egunero jangelara joaten ez bada, jangelako laguntza eska al daiteke? Bai, ikasturtean gutxienez 20 egun zerbiztu hori erabiliz gero.

16. Familia ugaria?

Familia ugariak familiaren etxebizitzan bizi den anai-arreba bakoitzeko, pertsona eskatzailea barne, familiaren errentan aplikatzeko deskontuak dituzte.

17. Ikaslea ikastetxetik 5 kilometro baino gehiagora bizi da, zergatik ez didate joan-etorrietarako laguntza eman?

Honako arrazoiengatik izan daiteke:

- Soilik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko, Hezkuntza Bereziko, Musikako eta Dantzako mailentzat delako.
- 2.errenta-muga gainditzeagatik.

18. Iazko diru-sarrera berdinekin edo antzekoekin, zergatik ez dut laguntza bera jaso?

Muga ekonomikoetako bat gainditzen duzulako, edo bizikidetzaren unitateko kideak aldatu egin direlako.

19. Zergatik da haur hezkuntzako laguntza lehen hezkuntzako baino handiagoa? Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. eta 2. mailan ikastetxe publikoetan curriculumak garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen (liburu solidarioak) programa ezarrita dagoelako.

20. Banandutako familien seme-alabek beka aitaren eta amaren bidez eska al dezakete? Ez, bietako batekin soilik, erroldatuta dagarenarekin.

21. Laguntzak beste mota bateko bekekin bateragarriak al dira? Ez, kontzeptu beragatik ematen badira,

22. Curriculumak garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen “Liburu solidarioak” programari uko egiten badiot, eskolako materialerako laguntza eska al dezaket?

Ez, programa horri uko egiten badiozu, ez duzu eskolako materialari dagokion inolako laguntzarik jasoko.

23. Adin mugarik ba al dago? ez

24. 2020ko errentaren kasuan, zer dokumentazio aurkeztu behar dut COVID-A9k eragindako osasun-krisiak larriki kaltetu badu?

SEPEk edo enpresak bidalitako ebazpena edo jakinarazpena aurkeztu behar da. Bertan, langabezian, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente egoeran, enplegu-erregulazioko espediente egoeran edo jarduera-itxieran egoera, gutxienez 3 hilabetez iraun duela jakinarazten behar da.